

# Euskal literatur sistema milurte berriaren atarian

Mari Jose Olaziregi  
EHUko irakaslea

Artikulu honek Londresen 2000ko uztailean egin zen “*1st International Symposium on Basque Cultural Studies*” delakoan irakurritako hitzaldia jasotzen du. Bertan, egungo euskal literatur sistemaren deskribapena egiten ahalegindu nintzen, hau da, euskal literatur testuen produkzioa, bitartekaritza eta harrera barneratzen dituen egituraren deskribapena. Euskal literaturak mende honetan izandako igoera kuantitatibo eta kualitatiboa aztertu ondoren, etorkizuneko erronkak zeintzuk izango liratekeen aurkeztera ere ausartu ginen. Ildo honetan, euskal lanen itzulpena, kritikagintzaren indartzea eta plazerezko irakurketa literarioaren aldeko aldarrikapena izan zen gurea.

This article includes the speech read at the “*1st International Symposium on Basque Cultural Studies*” held in London in July 2000. In this paper, I endeavoured to describe the current Basque literary system, that is, to describe the structure embracing the production, mediation and reception of Basque literary texts. Having analysed the qualitative and quantitative growth experienced by Basque literature during this century, I ventured to present the likely challenges of the future. This was in fact a manner of vindicating the translation of texts written in Basque, stronger criticism and an increase in the pleasure of reading.

Milurte berriko euskal literaturaren erronkez hitz egitean, ia saihestezina suertatzen zaigu Italo Calvinoren lan ezagunaz oroitzea. Gogoratuko duzue, bere iradokizunetan, laburtasuna, arintasuna, sendotasuna... eta hainbat proposamen aipatzen zizkigun italiarrak literatura berriaren ezaugarritzat. Horiek izango ditugu gogoan euskal literatur sistemaren deskribapen laburra izan nahi duen saio honetan.

Hala ere, gauden lekuan egonda, Londresen alegia, edonork pentsatuko luke erraza dela gure literaturaz mintzo garenean laburra izatea, azken batean, euskal literatura idatzia, zentzu hertsia eta garatuenean, XIX. mende amaierako kontua baita. 1545ean lehenengo euskal liburua argitara eman zenetik 1879 arte, 101 liburu bakarrik kaleratu ziren, eta gainera, horietatik 4 besterik ez ziren literaturazkoak. Bernado Atxagak darabilen metafora bat geureganatuz, euskal literatura urtetan lo egondako triku baten antzekoa dela esango genuke, XX. mendean bat-batean esnatu zen triku berezia. Eta esnaera honek azken hogeita hamar urteetan izan du eraginkortasunik handiena, ez bakarrik lege baldintza berriei azpiegitura sendagoen bermeak jarraitu diolako, baita helburu literarioz soilik argitaratzen den produkzio baten aurrean gaudelako ere. Behiala Gernikako arbola izan bazen W. Wordsworth-en inspirazio iturria edo Bertold Brecht bera Bilboko ilargiaz maiteminduta geratu bazen, azken urteetan, batez ere *Obabakoak*-en (1988) arrakastaren ondoren, euskal literatura ere mendebaldeko tradizioaren barnean dagoela sinesten hasiak dira adituak. Alegia, Atxagak T. S. Eliot-ek "Tradition and Individual Talent" (1920) artikuluko hitzak parafraseatuz esan zuen moduan, mundua Alexandria zabal bat bihurtu zaigula eta gaur egunean, garai eta leku desberdinetako egileak eskura ditugula. Beste hitz batzuekin esateko, partikularra eta unibertsalaren arteko tentsioak baldintzatzen duela kultur jarduera oro.

Arazoa da, oraindik ere, Alexandria zabal horretan, euskal literaturak apenas duela lekurik, edo beste era batean esanda, "Eman eta zabal zazu" lemak ez duela, literaturari dagokionez behintzat, eragin handiegirik izan. Honetaz, eta egungo gure literatur sistemaz hitz egingo dugu ondorengo puntuotan.

## 1. Euskal literatur sistema

Besteren artean, Tel Aviv-eko Unibertsitateko Itamar Even-Zohar-ek garatu duen *Polisistemen Teoria*-k (Polysystem Theory) tresna metodologiko interesgarriak eskaintzen dizkigu hizkuntza desberdinetako literaturen azterketari aurre egiteko. Hurbilpen formalisten mugak gaindituz, literatura sistema sozio-kultural gisara definitzen da eta literatur komunikazioan elkar eragiten duten aldagaiak aztertzen dira. Sistema nozioak, beraz, literatur jarduera funtzionalki definitzea eskatzen du eta bertan parte hartzen duten protagonistek elkarren artean dituzten harremanak zehaztea.

Esandakoari jarraituz, euskal sistema literarioaz mintzo garenean, *euskal literatur testuen produkzioa, bitartekaritza eta harrera* barneratzen dituen egituraz mintzo garela zehaztu beharko genuke. Egitura horretan, esaterako, bitartekarien artean sartuko lirakeke kritikagintzak egin ditzakeen ekarpenak.

*Produkzioaren alderdiari* bagagozkio, gauza jakina da, euskal literatur jarduera autonomia 50eko hamarkadan instituzionalizatu zela gurean eta bere garapenerako lege-baldintza egokiak Franco hil ostean, hau da, Aro Demokratikoa deitu izan zaion horretan, gertatu zirela. Autonomia Estatutuaren ostean (1979) onartu zen Elebitasun Dekretuak (1982) bultzada berria eman zion euskal literatur-gintzari. Egoera honetaz eta euskarazko argitalpengintzari instituzioek ematen zioten (eta dioten) dirulaguntzen babesean, argitaletxe berriak sortu ziren. Gertakariok guztiok eragin zuten euskal liburugintzan eta zenbakiak guztiz dira adierazkorrak: 1876-1975 bitartean, urtean 31,5 liburu argitaratzen bazen, 1976-1994 bitartean, kopuru hori 659,2 liburura igo zen. Horretaz gain, 1998an, 1.458 liburu argitaratu zirela ikus dezakegu eta Unesco-ren sailkapena jarraituz, % 14,2 literatur liburua zela, % 26 haur eta gazte literatura eta % 32,6 irakaskuntza-liburua. Guztiz aipagarria da literatur liburuen ehunekoa gutxituz joan dela azken urte hauetan eta inguruko hizkuntzetako argitalpengintzan duen ehunekora berdindu dela. Alabaina, aldatu ez dena, narraziogintzak edo narraziozko generoek duten lehentasun eta gailentasuna izan da. Azken datuen arabera, literaturan argitaratzen denaren % 59 narraziozko testuek osatzen baitute, % 10,1 poesiako lanek eta %6,3a antzezlanek. Literatur kritikari dagokioenez, ezin azken urteetako datu zehatzik eman, daukagun azken datua 1976-1994 epeari dagokiona baita. Urte horietan, literaturan argitaratzen zen % 4 soilik zegokion kritikagintzari.

Argitaletxeen egoerari begiratzuz gero, Euskadiko Editoreen Elkartearen azken ikerketaren arabera (1999), Euskal Autonomia Erkidegoan 100 argitaletxe dauzkagu gaur egun eta horietatik % 35a 1990 ostean sortu da. Aipagarria da argitaletxe txikiak direla gehienak, batezbeste, 4 langile dituztenak eta orokorrean inguruko hizkuntzetako argitaletxe handien promozio-kanpaina agresiboetatik oso urruti daudenak. Hona zenbait ohar: argitaratzen denaren ia erdia liburudendetan saltzen da oraindik eta gaur egun indarrean dauden beste salmenta moduei dago kienez (postaz, atez-ate, internetez, edo hipermerkatuetan), ez dira oso arrakastatsuak gurean. Biziraupen arazoak dituzte, oraindik, euskal argitaletxe gehienek eta horrek esplikatu luke, seguraski, azken urteotan promozio edo publizitatean gastatutakoak izandako jaitziera.

Produkzioaren atala osatzeko, gatozen *idazleei* dagozkien zenbait xehetasun komentatzera. Gaur egun euskaraz idazten duen 300 idazle inguru dagoela kontuan hartuz, euren ezaugarri soziologikoak honela deskribatuko genituzke: % 90 gizonetzkoak dira eta % 10 bakarrik emakumezko. Adinari dagokioenez, batezbeste, 49 urte dituzte idazleok (%70a 30-50 urte bitartean dabil) eta horren ondorioz, argi geratzen da gaur egun argitaratzen duten idazleen artean, belaunaldi desberdinetako egileak kausi ditzakegula. Hortxe dauzkagu, adibidez, 20-30 hamarkadetan jaiotako idazleak (Txillardegí,... ) edo 64ko belaunaldia deitu izan zaion horretan barneratuko lirartekeen Saizarbitoria, Lertxundi, Urkizu, Urretabizkaia bezalako egileak, edo autonomia literarioaren belaunaldia deritzona, hau da, 1950 ostean jaio ziren egileek osatzen dutena: Atxaga, Iturralde, Sarrionandia, E. Jimenez, Laura Mintegi, Oñederra, Landa...; edo 60ko hamarkadan jaiotakoak eta 80koan argitaratzen hasi ziren Aristi, Zabala, Xabier Mendiguren, Epaltza, Borda eta abar. Horietatik %60ak unibertsitate-ikasketak ditu eta %6a bakarrik bizi da literaturatik. Esan beharra dago egungo euskal idazle gehienak irakasleak ere badirela.

Eman ditugun datuotan deigarriena, ezbairek gabe, emakumezko idazleen ehuneko urria izango litzateke. Urritasun hau azaltzeko eman daitezkeen arrazoiak artean, promozio bideei dagozkien eskasiak edo urtetan egileok jasandako ahanura aipa genitzake. Mendebaldeko literatur tradizio gehienetan gertatu den moduan, euskal instituzio literarioek ere emakumezkoen literaturgintzari bizkar eman diote. Hasi euskal literaturari buruzko historietan izan duten protagonismo eskasetik (L. White irakasleak bere doktorego-tesian (White 1996) ongi frogatu duen bezala) eta sariketetan nahiz testuliburuetan duten presentzia urriarekin jarraituz (ik. Olaziregi 1999), argi dago emakumezko idazleek traba bat baino gehiago gaintitu behar izaten dutela oraindik normaltasunez literatur merkatuan barneratzen. Traba horien artean, inguruko literaturgintzetan dagoen kritika-bereizkeria aipatu beharko genuke, jakinaenez, gurean ere emakumezkoek idatzitako testu guztiak zaku berean sartzeko tentazioa izaten baita (ez da literatura, "emakumezkoek idatzitako literatura" baizik), edo "intimista" adjektibo erabiliegiaz deskribatzeko joera.

Idazleei dagokien atal hau osatzeko, 80ko hamarkadan sortutako literatur plataformek idazleen ugaltasunean izan zuten eragina azpimarratu nahiko genuke. Euskal Literatur Institutuzioaren ahultasuna nolabait konpondu zutelakoan gaude, jakinaenez, artean oraindik sendotu gabe baitzeuden unibertsitate-ikasketak edo irakaskuntza eredu euskaldunak. 1876-1936 urteetan Pizkundearen eraginpean gertatu zen moduan (gogoratu urte horietan 140 aldizkaritik gora sortu zirela Euskal Herrian), oraingoan ere etengabe ugartu ziren aldizkari literarioak (ik. *Pott, Oh! Euzkadi, Susa, Idatz eta Mintz, Maiatz, Kandela, ...*) bihurtu ziren belaunaldi berrien plataforma funtsezko.

Urte horietan ugartu ziren, halaber, sortzaileen eskubideak defendatzeko beharrezkoak ziren erakundeak. Ordukoak dira *Euskal Idazleen Elkarte EIE* (1982) edo *Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretatzaileen Elkarte EIZIE* (1987). Itzultzaileei dagokien ibilbidean, 1980an Euskaltzaindiaren ekimenez sortutako Martuteneko Itzultzaileen Eskola, edo 90eko hamarkadan Deustuko Unibertsitatean eta Euskal Herriko Unibertsitatean emandako Graduondoko Masterrak azpimarratu beharko genituzke. Euskal itzulpen gintzaren profesionalizazio eta bermatze prozesu honek aurrean erdietsiko du, hain justu, luzaroan aldarrikatu den helburu nagusietakoa: Itzulpen gintza eta Interpretazioaren Lizentziaturaren sorkuntza Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaurtik begirata, dudarik ez dago, euskal itzultzaileek hizkuntza literarioaren sendotze eta aberasteari egin dioten ekarpen funtsezkoa. Euskal irakurleen literatur horizontea aberastuz, gaur egun, Lermontov, Woolf, Joyce, Stevenson edo Primo Levi euskaraz irakurtzea gomendagarria ezezik, plazer hutsa ere bada. Edozein modutan, azpimarratzekoa da euskarara itzulitako ondare unibertsal honek ez duela, oraingoan, Manu Lopez-ek (2000) aurkeztu berri duen doktorego-tesitik kanpo, euskal kritikagintzaren arretarik merezi izan. Even-Zohar-ek darabilen kontzeptuaz baliatuz, *itzulpenek, haur eta gazte literaturak, edo emakumezkoek idatzitako literaturak* euskal literatur sistemaren gune guztiz marginala, periferikoa, dutela esango genuke.

*Harreraren* alderdiari heldu nahiko genioke jarraian eta hauxe dugu, hain justu, gure literatur sistemaren alderdirik ahulena. Euskal argitalpen gintzak azken urteotan izan duen igoera eta tiraden ugaltasunak euskaraz inoiz baino gehiago irakurtzen dela iradoki nahi badugu ere, guztiok dakigu euskal irakurleen perfil

soziologikoa ezezaguna zaigula oraindik. Ikerketa soziologiko zabal eta gaurkotu baten faltan, euskal irakurtalde desberdinen inguruan egin diren azterketek egoeraren diagnosi partziala egiten lagun diezagukete, eta hementxe sartuko genituzke, esaterako, nire doktorego-tesian egin nituen azterketa soziologikoak, 3.000 euskal hiztun gazte elebidun aztertzen zituztenak (Olaziregi 1998) edo Siadeko-k *Egunkaria*-rentzat 1996an egin zuen ikerketa. Ez da lekua eta momentua ikerketa horietako ondorioak komentatzekoa baina badira gutxienez bi datu guztiz nabarmentzekoak direnak. Batetik, euskarazko irakurlezaletasuna jaitsi egiten dela adinarekin eta irakurzaletasun horrek irakaskuntza zirkuituarekin harreman hertsiegia duela. Bestetik, 20 eta 39 urte bitarteko euskal hiztun alfabetatuek irakurzaletasun eskasa dutela (%36ak ez du liburu bakar bat ere irakurtzen euskaraz urtean)<sup>1</sup>.

Agi danez, Elebitasun Dekretuaren ostean, Euskal Autonomia Erkidegoan 100.000 euskal hiztun irabazi baditugu ere, uste genuen baino irakurle gutxiago erakarri ditugu. Alegia, euskaraz ikasi duten gazte asko ez dira benetan irakurzaletu eta euskal literatur merkatuak irakaskuntzarekin lotuegia jarraitzen du oraindik. Gaur egun gurean best-sellerrak kontsideratzen diren euskal titulu gehienak eskola-programekin hertsiki lotuta daude eta hainbat poltsiko-libururekin egindako saioen porrotak euskal literatur merkatuaren mugak erakusten ditu (egile ez hain ezagun baten kasuan 1.000 ale saltzea izugarritzko balentria izan daiteke)<sup>2</sup>.

Euskal sistema literarioaren eskema laburregi hau nolabait osatzeko, *bitartekariez* ere hitz egiteko garaia iritsi zaigu. Hauen artean, azken aldiaren agertu zaigun irudi berria gogoratu beharko genuke: agente literarioa. Beste hizkuntzetako literaturgintzetan ezaguna den irudi hau guztiz berria da gurean, eta dirudenez, lehenengo euskal agentzia 1995ean sortu zen Hego Euskal Herrian (Ikeder). Hala ere, jakina da idazle gutxi direla agenteaz baliatzen direnak, euskal literaturaren mundu ttikian, beste hizkuntzetara itzulita egon ezean, egile batek erraztasunez bidera baititzake bere konpromisoak. Agente literarioaz gain, literatur lanen promozioa eragin dezaketen beste elementu batzuk ere hizpide izan nahiko genituzke, hala nola, 80ko hamarkadaz geroztik gurean gutxituz joan diren literatur sariak. Zenbait literatur sarik idazleen promoziorako duen dudaezinezko garrantzia ahaztu gabe (Atxagaren kasua paradigmatikoa dugu honi dagokionez), gaur egungo euskal literatur merkatuan, sari bat irabazteak baino garrantzi edo eraginkortasun handiagoa izan dezake komunukabideetan etengabe iragarritako lan batek. Eta komunikabideez mintzo garenez, euskal prentsa idatziak azken urteotan izan duen

---

1. Harrigarria badirudi ere, 1999ko azaroan Euskadiko Editoreen Elkarteak 907 hiztunen artean egin zuen inkestan lortutako emaitzak, lau urte lehenago ikasleen artean egin nuen inkestan lortutako antzekoak ziren. 16 urtetik gorako biztanleek gogoko zituzten nobelak: *Los pilares de la tierra*, *El médico*, *Cien años de soledad*, *El señor de los anillos*, *La casa de los espíritus* eta *Paula* ziren. Bernardo Atxaga zen euskal egile aipatuena (29 aipurekin) eta *Obabakoak* titulurik aipatuena (11 aipurekin).

2. Uste dugu beharrezkoa dela best-sellerrez mintzo garenean zein salmenta-kopuruz ari garen zehaztea. Euskaldunen kopurua itxuraz 700.000 hiztunetakoa dela kontuan hartuz eta egin diren ikerketa desberdinen arabera irakurle potentzialen taldea 60.000 hiztun ingurukoa dela jakinez, argi dago, ondoren aipatuko ditugun salmenta datuok izugarri altuak direla aurreko kopuruak kontuan hartzen badira. Idazle salduena, noski, Bernardo Atxaga dugu: bere hainbat tituluk, hala nola, *Obabakoak*, *Bi letter* edo *Behi euskaldun baten memoriak* liburuek 50.000 ale inguru saldu dituzte. Horien ondoan, badira hainbat titulu, hala nola, J.M. Irigoienen *Babilonia*, P. Aristiren *Kcappo* edo Iñaki Zabaletaren *110 Streeteko geltokia famatua*, 30.000 aletik gora saldu direnak.

igoera azpimarratu beharko genuke. Erreferentzia labur hau baino azterketa sakonagoa mereziko lukeen kontu honek, euskal kulturari dagozkion gehigarriek, besterik egon ezean, literatur munduari eman dioten bizitasuna gogoratu nahiko genuke. Telebistari dagokionez, oraindik ere literaturari buruzko saioak urriegiak badira ere (aurten bertan estrenatu berri den *Sautrela* saio duinak bere emisio ordua du kontra), egunkari nahiz irratietan indarrean dauden saioek argitalpen berriez informatzen dute.

Eta horixe da arazoa hain justu, informatu besterik ez dutela egiten gehienetan. Izan ere, oraindik ere ezer baldin bada nabarmena gurean *kritikagintzaren* urritasuna baita. Euskal literaturaren historia garaikidean ez da egongo kritikaren urritasunarengatik kexatu ez den egilerik. Alabaina, kontua ez da kritikarik ez dagoela, egon bai baitago, baizik eta kritika hori, kasurik gehienetan, liburuaren aipamen edo erreseina laburrera mugatzen dela. Beste hitz batzuekin esateko, ez dela kritikatzeko, eta ikusi beharko litzatekeela, guztiok elkar ezagutzen dugun Euskal Herri txiki horretan benetako kritikarik onartzeko prest gauden.

Nire aburuz, euskal kritikagintzaren eskasiak aipatzeko garaian argigarria suertatzen da N. Frye-k egindako zehaztapena gure egitea. Alegia, bereiz dezagun: batetik, *kritika akademikoa*, zirkuitu hertsiagoan gauzatzen dena, gehienetan paradigma teoriko nahiz metodologiko jakinak jarraituz eta arrazoimena eta distantzia kritikoa bere eginez; bestetik, *kritika publikoa* deritzona izango genuke, komunikabideetan nahiz aldizkarietan, dela dibulgaziozkoetan, dela espezializatuagoetan, argitaratzen diren iruzkin, erreseina, elkarrizketa eta abarrek osatuko luketena. Kritika publikoaren helburuak lan baten inguruko argitalpen-informazioa, dibulgazioa edo promozioa izango lirateke. Bi kritika-mota hauen arteko distantziak ez badu zertan erabatekoa izan behar ere, gure kasuan izugarria da bien artean dagoen etena<sup>3</sup>. Zaila da gaur egun erreseina baten mugak gainditzen dituen iruzkinik euskal prentsa edo aldizkarietan aurkitzea. Eta horregatik dira kexu gehienetan euskal idazleak, aurkezpen eguneko elkarrizketaren ostean, obra gehienak oharkabean pasatzen direlako.

Baina hau ez da beti horrela izan gurean eta memoria pixka bat eginez, erraza zaigu literatur kritikagintzak zeresan handiagoa eman zuen garaietara begiratzea. Batetik, hortxe dauzkagu, 30eko hamarkadan euskal literatuaren inguruko auziak eragin zuen eztabaida (Aranbarri & Izagirre 1996). Bestetik, 80ko hamarkadan sortu ziren eztabaida literarioak. Lehenengoetan, poetika post-sinbolistaren aldekoek, poetika post-erromantizistaren aldekoen kontra eztabaidatu zuten. 80ko hamarkadako eztabaidetan, berriz, kritikagintza-mota izan zen gehienetan eztabaidaigai. Tartean geratuko lirateke, 50eko hamarkadan, *Egan* aldizkarian Koldo Mitxelena argitara emandako lan interesgarriak, edo urte batzuk lehentxeago, Andima Ibinagabeitiak *Euzko Gogoan*-n argitaratutakoak.

Gutziz esanguratsua da filologo bat izatea, Koldo Mitxelena handia (1915-1987), urtetan euskal instituzio literarioan itzal handienetakoa izan duena. Oroituko zaretenez, bere artikulua ezagun batek ("Nuestra irresistible ascensión de la poesía

---

3. Dirudienez, inguruko literaturgintzetan ahulduz joan da bi kritika mota hauen arteko aldea. Halaxe mintzo zaigu, behintzat, Darío Villanueva kritikaria (1992) gaztelaniazko kritikagintzari dagozkion berezitasunei buruz.

a la ciencia”, *Muga* 19, 1982-12-21, 5-19) izugarritzko hika-mika eragin zuen 80ko hamarkadaren hasieran. UZEIri eta hizkuntzaren normalizazioari egiten zizkion kritikekin batera, garaiko kritikagintza gogor eraso zuen Mitxelena artikulu horretan. Bere aburuz, kritika gutxiago egiten zen, kalitate eskasagokoa eta inpartzialtasunik gabekoa. Artikulu ezagun honek eragin zituen ehundik gorako erantzunen artean, Joxe Azurmendik emandakoan (“UZEI auzitan edo normalizazio bideak auzitan”, *Jakin*, 1982) edo Josu Landak kaleratutakoan (“Oker zabilta, Mitxelena, oso oker”, *Jakin*, 1982) kontrakoa defendatzen zen eta 50-70 hamarkadetan baino kritika gehiago kaleratzen zela baieztatzen zen.

Euskal kritikagintzaren inguruko auzia kritika mota desberdinen arlora lerratu zen urte batzuk beranduago. Kritika inpresionistaren aldekoek eta kritika zientifikoa edo akademikoa defendatzen zutenek, *Oh! Euzkadi* bezalako aldizkariak erabili zituzten eztabaidak bideratzeko. Ordukoak ditugu, esaterako, Ramon Etxezarretak kritika zientifikoaren aurka esandakoak (ik.: “Ez du Jon Kortazarrek zure plazerraren sentsazioa neurtuko, Tere”, *Oh! Euzkadi*, 1981) edo Mikel Hernandez Abaituak kritika zientifikoaren alde eta inpresionistaren aurka kaleratutakoak (ik.: “Badakigu EUTG ez dela mundu osoa. Inor ez da idiota”, *Oh! Euzkadi*, 1981).

Manu Lopezek argitaratu zuen “Kritikak eta kritikoak azken euskal literaturan” (*Jakin* 49, 1988ko urria-abendua, 73-86) artikuluan argi adierazi zituen urte horietako eztabaiden nondik norakoak, eta berdin generake Jon Kortazarrek *Luma eta Lurra* (BBK/Labayru, 1997: 29) liburuaren sarreran egiten duen birpasaz ere. Kortazarrek oroitarazi digunez, Felix Ibargutxi kazetariak 1987. urtea “Idazle guztiak aztoratu ziren urtea” izendatu zuen eta urte horretan sortutako eztabaida nagusiak laburbildu zituen. Memoria pixka bat eginez, hortxe daukazue Jon Juaristik *Antología de la narrativa vasca actual* liburuari egindako kritikak; Antton Azkargortak, Atxaga, Iturralde eta Ordorikaren *Henry Bengoa Inventarium*-i egindakoak; Paco Aristik A. Urretabizkaiaren *Saturno* nobelari egindako kritika misoginoa; Joxerra Garziak Laura Mintegiren *Bai... baina ez!* nobelaren idazkerari buruz esandakoak; Verines-en egiten diren topaketen ostean Mikel Hernandez Abaitua eta Jon Juaristiren artean sortutakoak; Valentziako Galeuzcan sortutakoak,... Gaurtik begiratuta, garai hartako pasio eta eztabaidek kritika, zernahi motakoa zelarik ere, beharrezko eta ezinbesteko irizten zen unea iradokitzen digute. Harrezkero, eta aldizkari haietako askoren desagerpenarekin batera, gero eta bereizi eta bakana goak izan dira bi kritikagintza moten arteko konfluentzia-guneak.

Edozein modutan delarik ere, azken urteotan zerbait nabarmendu bada, kritika akademikoa deritzonaren garapena izan da eta garapen hori 80ko hamarkadan sortuz joan ziren unibertsitate-gune desberdinen ondorio zuzena da. Gogorra dezagun, 1981ean sortu zirela Euskal Filologiako lehenengo 20 lizentziatuak Deustuko Unibertsitatean (urte batzuk beranduago, EHUko lehenengo promozioa atera zen). Urte berean, Jean Haritxelharren zuzendaritzapean, Euskal Ikasketen Saila zabaldu zen Bordeaux III unibertsitatean. 1980ko abuztuan, ostera, Euskal Hizkuntza eta Literaturako lehen hamar katedratikoak izendatzen dira Gipuzkoa eta Bizkaiko institutuetan eskolak emateko. Ikasketa-gune hauetatik sortzen zihozen promozio berriak izan dira, hain justu, euskal kritikagintzari orain artean izan ez duen sendotasun eta modernotasuna eman diotenak. Artikulu honen

mugak aurrerapausu guztion zehaztapena egitea eragozten badigu ere<sup>4</sup>, badira bi gauza gutxienez azpimarratu nahiko nituzkeenak. Hasteko, euskal literatur ikerketen arlorik ahulenean, hau da, historiografiari dagokion atalean, leku marginal eta periferikoa duten hainbat literaturgintzari buruz burutu diren ikerlanak. Lehenago aipatu dugun Linda White-ren tesiaz edo 1996an Xabier Etxaniz irakasleak haur literaturaren historiari buruz defendatutakoaz mintzo gara, preseski. Bestalde, azken hamarkada honetan irakurri diren doktorego tesietan emakumezko ikerlarien kopuruak izan duen dudaezinezko gorakada nabarmendu beharko genuke<sup>5</sup>.

## **2. Hamaika iradokizun, eta bat gehiago, euskal literatur sistemaren erronkei buruz**

Aurreko lerroetan laburki irudikatu dugun euskal literatur sistemak alderdi ahul bat baino gehiago erakutsi dizkigu. Gure jarduna amaitzeko, datorren milurte berriaren atarian gure ustez erdietsi beharko genituzkeen helburuak laburbilduko ditugu.

### **2.1. Irakurketaren plazerra**

Argi eta garbi adierazi dugu goiko puntuetan, harreraren alderdia dela, oraindik ere, gure literatur sisteman ahulena. Alegia, literaturaren irakurketa oraindik irakaskuntzari lotuegia dagoela, ez dugula plazer hutsagatik irakurtzen euskaraz, helburu funtzional desberdinak direla medio baizik (euskara-maila hobetzea, eskola-programak betetzea...). Inguruko literaturetan ere irakurleek liburuarekin dituzten harremanak gaur egun oso pasiozkoak ez direla ikusi bada ere, gurean arazoa larriagoa da. Aditu askok frogatu dutenez, (besteren artean, Schüking, Escarpit, Blanchot... eta hainbatek), eskolan bakarrik oinarritutako irakurzaletasunak ez du luzaroan irauten. Bada garaia helburu estetiko hutsez irakurtzen duen herria bilakatzekoa. Umberto Eco-ren *Arrosaren izena* nobelan Kempisko Tomasen ahotan jartzen diren hitzak oroitarazi nahiko nizkizueke: «Gauza guztietan bilatu nuen plazerra, baina aurkitu, liburu batean bakarrik aurkitu nuen». Hori gurean

---

4. Literaturaren ikerketak azken urteetan izan duen bilakaeraren berri izateko, Olaziregi 1997 irakurtzea aholkatzen dugu.

5. Gehiegi pentsatu beharrik ez dago doktorego-tesi hauetan aztertuak izan diren egileak euskal literatura-ikerketetan behin eta berriro kanonizatutakoak direla ohartzeko. Ildo horretatik, ulergarria da doktorego-tesi hauen gehiengo poeten lanen azterketen inguruan egindakoa izatea eta ez euskal narraziogintzaren ingurukoa. Kasu honetan, tradizioaz ez ezik, behin eta berriro azpimarratutako poetika edo poeten itzalez ere mintzo baikara. Doktorego-tesien birpasa eginez, Pizkundeko egileei buruzkoak gogoratu hasi beharko genuke: Lizardiri buruzkoak (K. Otegi (1991); Lourdes Otaegi (1993)); Orixerri buruzkoa (G. Etxeberria, 1997); "Herri poesia eta gerraurreko lirika: Orixe, Lauaxeta, Lizardi" izenenkoa (J.K. Igerabide, 1990). Lau tesi hauei, 1985ean Jon Kortazarrek Lauaxetari buruz irakurritakoa gehitu beharko genieke.

Gabriel Arestiren obrari buruzkoak ere baditugu pare bat (A. Arkotxa (1992); I. Aldekoa (1996)); ohiturazko nobelagintzari buruz, 1989an A. Toledok irakurritakoari, 1990ean S. García Trujillok defendatutakoa erantsi beharko genioke... edo garaiko euskal idazle itzulienaren, Bernardo Atxagaren, inguruko beste bi tesi: M. Jose Olaziregiren (1997) eta U. Apalategiren (1998). Zerrenda honi, Erretorikaren ikuspuntutik P. Salaberrik (1997) Axularri buruz egindakoa; Jon Casenavek Jean Etchepareri buruz egindakoa (1997), Fermin Arkotxak Chahori buruz paratutakoa (1998), Eneko Bidegainek (1999) ikuspuntu estilistikoz egindakoa,... nahiz haur literaturari buruz egin direnak (X. Etxaniz (1996); E. Martin (1998); M. Lopez (2000)) gehitu beharko genizkieke.



gara dadin, behingoz baztertu egin beharko ditugu eskoletako irakaskuntza-eredu zaharkitu eta kaltegarriak, edo literatur hizkuntzaren liluran geratzen diren irakurketa jasangaitzak (literatur sariketa askotakoak barne). Euskararen egoera diglosikoa kontra egon arren, euskal literaturak beharrezkoa du betiko topiko erromantikoetatik ateratzea: hizkuntza ez da herri baten arima, eta bere literatura ere ez.

## 2.2. Kritikagintza

Aurreko puntua posible izan dadin, hau da, behingoz euskal irakurleei literaturaren plazer estetikoaren promesa egin diezaiegun, ezinbestekoa zaigu kritika-gintza indartzea. Kritika, ez noski, Dylan Thomas-ek salatu zituen kritikari-jaintu-tuen antzera obrak eta egileak pontifikatzeko, zuhurtzia handienaz irakurketen berri emateko baizik. Eta horretarako, egun kritika akademikoaren eta publikoaren artean dagoen etena apurtu behar dugu. Unibertsitateko irakasleok inplikatu egin behar genuke komunikabide eta aldizkarietan gure irakurketa eta interpretazioak eskaintzeko. Eta bereziki, sistema perfektuen azterketa ere bideratzen ahalegindu beharko genuke, hau da, itzulpenek, emakumezkoek idatzitako literaturak edo haur literaturak oraindik duten marginaltasuna eta ahanztura gainditzen ahalegindu. Aberas dezagun, behingoz, gure literatur horizontea eta zabal ditzagun irakurketak betiko egile kanonizatuen lanez haratago.

## 2.3. Itzulpenak

Azken iradokizun gisara, euskal lanen itzulpenaz ohar batzuk egitea gustatuko litzaidake. Aspaldian sortu ziren gurean euskal lanak beste hizkuntzetara itzulitzeak ekarriko zizkigun onuren berri mintzo ziren ahotsak. Hortxe daukazue, esaterako, 1960an Koldo Mitxelena argitara emandako "Asaba zaharren baratza" artikulua ezaguna, edo 1987an II. Mundu Biltzarrean J.M. Velez de Mendizabalek euskal idazleak profesional bihurtu ahal izateko itzulpenari ikusten zizkion abantailak. Bernardo Atxagaren nazioarteko arrakastaren ondoren, berriro ere piztu da eztabaida hau gurean, modu gogor eta zurrunbilotsuan piztu ere, Ibon Sarasolak "Sinn Fein" konplexuaz esandakoen ondoren. Nire aburuz, gure konplexuak gainditu eta itzulpenak benetan ekar diezazkigukeen onurez ohartu beharko ginateke. Euskal lanak ez dira itzuli behar "kalitate labela" lortzeko edo inguruko literaturgintzekin homologatzeko, itzulpenak gutxiengoaren hizkuntzetan izugarritzko garrantzia duelako baizik. Alegia, beste hizkuntzetako irakurleek euskal literaturaren horizonte literarioa aberasteaz gain, gure hizkuntza mantentzeko bermea ere ematen digu itzulpenak. Baina honetaz ez dira orain arte ohartu gure agintariak eta dirudienek, aurten, 2000. urtean, hasiko dira lehenengoz euskal lanen itzulpenak subentziona-tzen.

Ez dakit lerrootan aipatu dizkizuedanak euskal literatur sistema garaikidea ulertzeko baliagarri suertatuko zaizkizuen. Hitzaldi hau idazten hasi nintzenean, toreroen lagun izateagatik ere ezaguna zen idazle iparramerikarrak esandakoak izan nituen gogoan: artea ezagutzeak, artea bera maitatzen irakasten digula. Hori-xe nahi nuen nik lerro hauekin, zuek ere euskal literatura ezagutzen eta maitatzen ikastea.

## Erreferentziak

- Aranbarri, I. & Izagirre, K., (1996): *Gerraureko literatur kritika*, Amorebietako Udala-Labayru.
- Olaziregi, M.J., (1997): "La historiografía literaria vasca (1990-1996). Resumen crítico bibliográfico", *Cuadernos de Alzate* 16, 1997ko maiatza, 185-190.
- , (1998): *Euskal gazteen irakurzaletasuna. Azterketa soziologikoa*, Bergarako Udala, Bergara.
- , (1999): *Intimismoaz haraindi: Emakumezkoek idatzitako euskal literatura* [Beyond Intimism: Basque Literature written by Women], Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Villanueva, D. (dir.), (1992):, *Historia y Crítica de la Literatura Española*, vol 9, Crítica, Bartzelona.
- White, L., (1996): *Emakumeen hitzak euskaraz: Basque Women writers of the twentieth century*, University of Reno, Nevada.